

# Telelanaren oinarrizko lexikoa



UZEIren lankidetzarekin



**EUSKALTZAINDIA**

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

## **atzeko plano birtual**

*Bideokonferentzia edo bideodei batean, solaskidearen atzean bistaratu daitekeen ingurune simulatua. Solaskidea dagoen egiazko ingurunea ezkutatzeko erabiltzen da.*

## **aurrez aurreko bilera; bilera presentzial**

*Fisikoki leku berean elkartuz solaskide-talde batek egiten duen bilera.*

## **aurrez aurreko irakaskuntza; irakaskuntza presentzial**

*Ikaslea eta irakaslea fisikoki aurrez aurre, eskuarki ikastetxean bertan, egotea eskatzen duen irakaskuntza.*

## **aurrez aurreko lan; lan presentzial**

*Enpresan bertan edo enpresak erabakitako lantokian egiten den lana.*

## **bideodei**

*Toki berean ez dauden bi pertsonaren edo gehiagoren arteko deia, elkar ikusteko eta entzuteko aukera ematen duten gailu elektronikoen bidez egiten dena (eskuarki, telefono adimendunak edo ordenagailuak erabiliz).*

## **bideokonferentzia**

*Toki berean ez dauden bi pertsonaren edo gehiagoren arteko bilera edo hizketaldia, elkar ikusteko eta entzuteko aukera ematen duen telekomunikazio-sare baten bidez egiten dena.*

**bilera telematiko;**  
**telebilera;**  
**bilera birtual**

*Toki berean ez dauden bi pertsonaren edo gehiagoren arteko bilera edo hizketaldia, telekomunikazio-sare baten bidez egiten dena.*

**deskonexiorako eskubide;**  
**deskonektatzeko eskubide**

*Langileak duen eskubidea, lanerako erabiltzen dituen tresna digitaletara lanorduetatik kanpo konektatuta ez egotekoa.*

**groupware;**  
**elkarlanerako software**

*Sare informatiko jakin batera konektatuta lanean ari direnei informazioa trukatzeko eta proiektu bera elkarrekin lantzeko aukera ematen dien softwarea.*

**irakaskuntza hibrido**

*Aurrez aurreko irakaskuntza eta online irakaskuntza konbinatzen dituen irakaskuntza mota.*

**kontziliazio;**  
**lana eta bizitza pertsonala bateragarri egite**

*Denbora antolatzeko modua, lana eta bizitza pertsonala bateragarri bihurtzea helburu duena.*

## **lanaldiaren malgutasun; lan-ordutegiaren malgutasun**

*Lanaldiaren antolaketa, langileari ondoen egokitzen zaizkion lanordukopurua, ordutegia, lan-txanda eta antzeko baldintzak hautatzeko aukera eskaintzen diona.*

## **lanpostu ergonomiko**

*Langilearen osasuna, segurtasuna eta errendimendua optimizatzeko, haren premietara eta ezaugarri fisiologiko eta psikologikoetara egokituden lanpostua.*

## **online irakaskuntza**

*Informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabileran oinarritutako irakaskuntza, ikaslea eta irakaslea fisikoki aurrez aurre egotea eskatzen ez duena.*

## **sare pribatu birtual; SPB; VPN**

*Sare pribatua, sarbide publikoko telekomunikazio-sare bat (hala nola Internet) erabiliz sortutakoa. Besteak beste, telelangileek beren enpresako sare lokalera konektatzeko erabil dezakete, trukutzen duten informazioa arriskuan jarri gabe.*

## **talde-dei**

*Bi pertsona baino gehiagoren arteko deia, telefonoz edo bestelako gailu elektroniko bidez egiten dena.*

## **teknoestres; estres teknologiko**

*Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzeak sortutako estresa.*

## **telelan**

*Nagusiki edo soilik informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliz egiten den urrutiko lana, enplegatzaileak eta langileek elkarrekin adostutako baldintzen arabera egiten dena.*

## **telelangile**

*Telelana egiten duen pertsona.*

## **urrutiko lan**

*Lana antolatzeko edo egiteko modua: horren arabera, langileak lana berak aukeratutako lekuan egiten du (etxean edo enpresatik kanpoko beste leku batean), lanaldi osoz edo lanaldiaren zati batean.*

## **urrutiko lanari buruzko akordio**

*Enplegatzailearen eta langileen arteko akordioa, urrutiko lanaren baldintzak (baliabide teknikoak, ordutegia eta abar) zehazten dituenak.*

## **web-kamera**

*Ordenagailu bati konektatua dagoen kamera, irudiak hartzeko eta Internet bidez hedatzeko erabiltzen dena.*

## **web-posta**

*Postontzi elektronikora sartu eta mezu elektronikoak jasotzeko eta bidaltzeko aukera ematen duen zerbitzua, web-orri baten bidez eskaintzen dena.*



UZEIren lankidetzarekin



**EUSKALTZAINDIA**

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE